

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

273/2020 Foru Deketua, Diputatu Nagusiarena, irailaren 7ko, Honen bidez onartzen da Javier Hurtado Dominguez jauna, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu kargutik kentzea, hark hala eskatuta

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 78. zk, uztailaren 8koa), Javier Hurtado Dominguez jauna izendatu zen Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu.

Bat etorri Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 19.8. artikuluan xedatutakoarekin, diputatu nagusiak izendatu eta kargutik kentzen ditu foru diputatuak.

Horregatik, ahalmen horiez baliatuz, ondoko hau

XEDATU DUT

Lehenengoa. Javier Hurtado Dominguez jauna Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu kargutik kentzea, hark hala eskatuta. Eskerrak ematen zaizkio Foru Aldundiarentzat eta Arabako Lurralde Historikoarentzat egindako lanagatik.

Bigarrena. Foru dekretu honek irailaren 8tik aurrera, asteartea, eragingo ditu ondorioak, sailaren titularrak kargua jabetzan hartzeko ekitaldiaren ondoren.

Hirugarrena. Foru dekretu honen berri ematea Arabako Batzar Nagusiei, eta ALHAOn argitarara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE